

2006-2007 IKASTURTERAKO PLANGINTZA

Helburu nagusia: **Gure EUSKARA SUSTATZEKO PLANGINTZA**ren ardatza honako hau da: euskararen erabilera areagotzea. Ikasgelako erabileraz gain, gure ikasleek eskolako esparru guztietan euskara gehiago erabil dezaten indar berezia eginen dugu.

Esparrua	Helburua	Ekintza	Denboralizazioa
01.01. Ikastetxearen antolakuntza. Zuzendaritza.	Euskararen erabilerak lehentasuna izanik, erabilera suspertzeko eta prestigioa bermatzeko bitartekoak jarriko ditu Zuzendaritzak	Ikasturte hasierako aurkezpen ekitaldietan zein ikasturte bukaerakoetan, Euskara Sustatzeko Plangintzaren aipamena eginen da.	Ikasturte hasieran eta bukaeran.
01.02. Ikastetxearen antolakuntza. Lan taldeak.	Euskara Sustatzeko Plangintza erreferentzia aintzat hartuta garatuko dira talde honetako jarduerak ezberdinak.		Ikasturtean zehar.
01.03. Ikastetxearen antolakuntza. Dokumentazioa.	Hizkuntza proiektuari forma eman eta orain arte egindako dokumentu guztiak bakar batean bildu.	Hizkuntza proiektua klaustroan eta Eskola Batzordean onartu.	Ikasturtean zehar
01.04. Ikastetxearen antolakuntza. Material pedagogikoa.	Teknologia berrien erabilera euskararen erabilera aintzakotzat hartzea	Eskolako Web orria elikatu	ikasturtean zehar
		Euskarazko WEB gune interesgarrien aurkibidea osatu eta irakasleen eskutara jarri	Ikasturtean zehar
		Ikasleentzat dauden webguneak irakasleen eskutara jarri ikasleekin lan dezaten	Ikasturtean zehar
01.05. Ikastetxearen antolakuntza. Paisaia linguistikoa.	Eskolako gune nagusien kokapena argiago adierazteko modua prestatu		Ikasturtean zehar

Esparrua	Helburua	Ekintza	Denboralizazioa
02.00. Irakasleak. Orokorra.	Euskara Sustatzeko Plangintza atalez atal jorratu eta elikatzeko bideak prestatu.	Klaustro maian lan saioak eginen dira.	Bigarren eta hirugarren hiruilekoan.
02.01. Irakasleak. Motibazioa.	Esaera zaharrak eta lokuzioak ikasi eta erabili.	Hamabostean behin esapidea jarriko da irakasle geletan	Azarotik Ekainera
02.02. Irakasleak. Ezagutza.	Euskararen ikaskuntza prozesuan erabileraren garrantziaz gogoeta egin	Tutoreek gurasoekin egiten dituzten bileretan, erabileraren ohitura jorratzeko premia adieraziko dute.	Irail-urrian
	Ahozkotasanari ematen zaion trataerari buruzko gogoeta egin	Ahozkotasanari ematen zaion trataera errebisatzeko prozedura eta jarduerak prestatu.	Bigarren hiruilekoan
03.00. Ikasleak. Orokorra.	Ezagutza sendotu eta erabilera suspertu.	Jolaseko hizkuntzari dagozkion esapideekin txartelak egingo dira eta eskolako zenbait tokitan itsatsi, hiru hilabetero aldatuko dira.	Ikasturtean zehar
	Jolas orduan ikasleek euskara gehiago erabili dezatela	Patioa zaintzeaz arduratzen den irakasleak euskararen erabilera bultzatuko du ikasleen artean eta ikasleak gazteleraz entzuten dituenean esku hartuko du irakasleak.	Ikasturtean zehar
	Jolas orduan ikasleek euskara gehiago erabili dezatela	Astean behin, euskaraz jolastu jolas saioa antolatu eta hiruilekoan behin jaialditxo bat antolatu egindako jolasekin. Jokoaz gain jolasak erregulatzeko esapideen ereduak emango zaizkie.	Ikasturtean zehar
	Jolas orduan ikasleek euskara gehiago erabili dezatela	Ikasleen gustuko txapelketak antolatuko dira jolas orduan eta eguerdian, nahi duten ikasleentzat.	Urtarriletik aitzinera
	Jolas orduan ikasleek euskara gehiago erabili dezatela	Kirolari eta beste erabilera ez formalei lotutako hiztegi eta esapideak landuko dira	Urtarriletik aitzinera
		VII. Joko Topaketan parte hartu	Urrian

Esparrua	Helburua	Ekintza	Denboralizazioa
	Autobusez egiten ditugun irtenaldietan euskararen erabilera areagotzea	Autobusetako joan-etorrietan euskal musika kaseteak eta euskal bideoak jarriko zaizkie	Ikasturtean zehar
	Autobusetako joan-etorrietan euskararen erabilera areagotzea	Autobus enpresei gidari euskaldunak eskatuko zaizkie	Urrian
	Euskararen erabileraren aldeko jarrera piztea	Abenduaren 3an euskararen eguna ospatu (jaieguna dugunez, abenduaren 1ean egin)	Abenduan
		Eskolako "Xiri-Miri" aldizkarian parte hartu. 3. zikloko ikasleek koordinatu eta eskolako ikasle guztiek parte hartu.	Aldizkaria ateratzen denean
		"Xorroxin" irratan parte hartu. Ikasleentzat erreferente diren pertsonaia euskaldun ospetsuak elkarrizketatzeko probestu: futbolariak, abeslariak, aktoreak...	Dagokigun garaian
		"Mugaz Gain" antzerki topaketetan parte hartu, antzezle eta ikusle gisa. Lehenengo eta hirugarren ziklokoek obra bat antzeztu eta denek ikusle gisa parte hartu.	Ikasturtean zehar eta maiatzean
		Zinema euskaraz ikusteko aukera eskaini, Beran antolatzen den film laburren emanaldietan eta Donostiako zinemaldian parte hartu.	Irailean
	Euskararen erabileraren aldeko jarrera piztea	Euskarazko ikuskizun bat eskaini ikasturtean zehar, Euskara Atalak eskaintzen duen dirua probestuz.	Hirugarren hiruhilekoan.
		Jantokian, janaren eta jatearen inguruan erabiltzen diren esapideekin txartelak itsatsiko dira	Urritik aitzinera
		Euskararen erabileraren aldeko esloganekin hormiduriak egin ikasgelan eta pasabideetan jartzeko	bigarren hiruhilabetean
		Bertsolaritza eta deklamazio lehiaketetan parte hartu.	Urritik apirilera

Esparrua	Helburua	Ekintza	Denboralizazioa
		Bertsolari ospetsuren bat ekarri ikastolara eta bere bertsoekin eta ikasleek sortutakoekin bertso festa antolatu	Hirugarren hiruhilabetean
04.00. Gurasoak. Motibazioa.	Euskararen erabileraren aldeko jarrera aktiboa sustatzea gurasoengan haiek seme-alabengan eragin dezaten	Erabilerari dagokionez, euskararen egoera zein den azaldu gurasoei, gelako bileretan, bakarkako elkarrizketetan	Ikasturte hasieran, bakarkako bileretan, irakasle bakoitzaren arabera
		Guraso-bileretan euskarari lehentasunezko tokia eman.	Ikasturte hasieran, bakarkako bileretan irakasle bakoitzaren arabera
		Seme-alabengan euskararen erabilera sustatzeko mailaz maila gelako bileretan edo hiruhilabetearen hasieran gurasoei aholkuak bidaliko zaizkie	Lehen hiruhilabetean
		Eskolako "Xiri Miri" aldizkarian, tarte bat erabiliko da gurasoei euskararen erabilerari buruzko aholkuak txertatzeko eta euskara menderatzearen garrantzia azpimarratzeko	Aldizkaria egiten den garaian
04.01. Gurasoak. Ezagutza.	Gurasoen euskara ezagutza areagotzea	Euskara ikastaroak egiteko informazioa banatuko da gurasoen artean. IKA euskaltegiari eskolako gelak utziko zaizkio bertan klaseak eman ditzan.	Irail-urria
04.02. Gurasoak. Erabilera.	Eskola Kontseiluan parte hartzea	Guraso Elkarteko partaideei eskatuko zaie Eskola Kontseiluan parte hartzen dutenak, ahal den neurrian, euskaldunak izateko, bilerak euskara hutsez egin ahal izateko.	Azarotik aitzinera
		Eskolako oharrak familia-hizkuntzaren arabera idatzita igorri.	Urtarriletik aitzinera

Esparrua	Helburua	Ekintza	Denboralizazioa
04.03. Gurasoak. Partaidetza.	Gurasoen partaidetza areagotzea	Gurasoen Elkarteari Euskara Sustatzeko Plangintzaren berri eman, eurak ere partaideak izan daitezten.	Bigarren hiruhilabetean
05.00. Euskararen erabilera sustatzeko erabakiak. Orokorra.	“Euskara Taldeak” adosten dituen hizkuntza prozedurak, jarrerak eta jokabideak ikastetxean bermatzea.		Ikasturtean zehar
05.01. Euskararen Normalizazioa sustatzeko erabakiak.	Euskararen Normalizaziorako adosten diren erabakiak ikastetxeko dokumentazioan txertatzea		Ikasturtearen buruan
06.00. Eskolaz kanpoko ekintzak. Herriko aisi-kirol-kultur elkarteekin.	Euskararen erabilera bultzatzeko antolatzen diren jardueretan parte hartzea	Etiket euskaldunak ez diren ikasleak, udan euskaraz egin dezaten euskal kanpaldietan parte hartzera bultzatu	Ekainean
07.00. Harremanak. Orokorra.	Erakundeetatik ikastetxera bidaltzen den dokumentazioa ele bietan edo euskara hutsean izan dadila	Eskatu formalki gutunen bidez, faxaren bidez edo korreo elektronikoz euskaraz edo ele bietan bidaltzeko dokumentazioa	Ikasturtean zehar
08.00. Langile ez irakasleak. Ezagutza.	Jangelako eta autobusetako begiraleen euskara maila hobetzea	Autobusetan eta jangelan aritzen diren langileak euskaldunak izatea eta euskaraz aritzen direla bermatzea.	ikasturte hasieran
08.01. Langile ez irakasleak. Partaidetza.	Jangelako eta autobusetako begiraleek euskara erabiltzera bultzatzea gure ikasleak	Jangelako langileei irizpideak eman ikasleek euskaraz egin dezaten bultzatzeko.	ikasturte hasieran